Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNUKO BATZARRAK 2020EKO AZAROAREN 24AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 24 DE NOVIEMBRE DE 2020.** |
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Amaia Aguirre Muñoa And.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Keltse Eiguren Alberdi And.
Irantzu Uriarte Gómez And.
Álvaro González Pérez Jn.
Janire Ocio Celada And.
Iñigo Urkitza Yañez Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hogeiko azaroaren hogeita lauan eta Amaia Aguirre Muñoa alkate andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veinticuatro de noviembre de dos mil veinte, y bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, doña Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian,

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**379.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO AZAROAREN 17AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2020ko azaroaren 17ko bilerakoa, hain zuzen.

**379.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 17 DE NOVIEMBBRE DE 2020.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 17 de noviembre de 2020.

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**380.- “LA VENTA” IZENEKO UDAL ERAIKINAREN BEHEKO SOLAIRUA EGOKITZEKO OBRAREN KONTRATUA ALDAKETA ONARTZEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

Lehenengoa: “La Venta” izeneko udal eraikinaren beheko solairua egokitzeko obraren kontratua aldatzeko espedientearen hasiera baimentzea eta aldaketa onartzea, asmo honekin: kontratuaren adjudikaziodunarekin kontrajarriz adostutako prezioak onartzea, bere zenbatekoa 9.638,09 eurotan handitzea suposatzen duelarik (BEZ barne).

Bigarrena: Kontratu aldaketa horri aurre egiteko beharrezkoa den 9.638,09 euroko gastua baimendu eta xedatzea.

Hirugarrena: Ebazpen hau kontratuaren esleipendunari jakinaraztea, gehienez hamabost egun naturaleko epean (jakinarazpena

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**380.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE LA OBRA DE ADECUACIÓN DE LA PLANTA BAJA DEL EDIFICIO “LA VENTA”.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

Primero: autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato de la obra de adecuación de la planta baja del edificio municipal denominado “La Venta”, al objeto de aprobar los precios acordados de forma contradictoria con la adjudicataria del contrato, lo cual supone incrementar su importe en 9.638,09 euro
s (I.V.A. incluido).

Segundo: Disponer el gasto, por importe de 9.638,09 euros, necesario para hacer frente a la citada modificación contractual.

Tercero: Notificar la presente resolución a la adjudicataria del contrato, a efectos de que en el plazo de quince días naturales, a partir del recibo de la

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

jasotzen denetik) kontratuaren behin betiko bermea egokitu dezan, 400,13 eurotan gehituz.

notificación del mismo, proceda a reajustar la Garantía Definitiva del contrato, incrementándola en la cantidad de 400,13 euros.

Baita Azpiegitura eta Zerbitzuak departamenduari jakinaraztea ere.

Notificar así mismo al Departamento de Infraestructura y Servicios.

Laugarrena: Aldaketa administrazio-dokumentuan formalizatuko da, ebazpen hau adjudikaziodunari jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 egun balioduneko epean, baina beti aurreko apartatuan jasotako bermea berriz egokitu ostean.

Cuarto: La modificación se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación a la adjudicataria de la presente resolución, pero siempre previo el reajuste de la garantía recogido en el apartado anterior.

**381.- UDALERRIKO KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO PLAN BAT IDAZTEKO ZENBITZUA ADJUDIKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA, PLEGUAK ONESTEA ETA GASTUA BAIMENTZEA.**

**381.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN DEL PLAN DE ADAPTACIÓN DEL MUNICIPIO AL CAMBIO CLIMÁTICO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

Lehenengoa.- Getxoko udalerriko klima-aldaketara egokitzeko plan bat idazteko zerbitzua prozedura ireki bidez esleitzeko arauzko izapidetzari hasiera ematea baimentzea.

Primero.- Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento abierto, del servicio de redacción del plan de adaptación al cambio climático del municipio de Getxo.

Kontratuaren gauzatze epea 7 (zazpi) hilabetetakoa izango da, kontratua sinatzen den datatik zenbatuta.

El plazo de ejecución del contrato será de 7 (siete) meses, a contar desde la fecha de la firma del mismo.

Kontratua ezin izango da luzatu.

El contrato no será prorrogable.

Bigarrena.- Kontratuaren prezioa, %21eko BEZa barne, 32.499,39€koa (hogeita hamabi mila lauehun eta laurogeita heretzi euro eta hogeita

Segundo.- El precio del contrato IVA del 21% incluido, será de 32.499,39€ (treinta y dos mil cuatrocientos noventa y nueve euros y treinta y nueve

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

hemeretzi zentimokoa) izango da.

céntimos).

Kontratuaren balio estimatua 32.230,80€koa (hogeita hamabi mila berrehun eta hogeita hamar euro eta laurogei zentimokoa) da. hau da, 26.859€ (hogeita sei mila zortziehun eta berrogeita hemeretzi euro), gehi 5.371,80€ (bost mila hirurehun eta hogeita hamaika euro eta laurogei zentimo), Baldintza Pleguetan zehazten diren aldaketak kontutan hartuz.

El valor estimado del contrato asciende a la cuantía de 32.230,80€ (treinta y dos mil doscientos treinta euros y ochenta céntimos); esto es, 26.859€ (veintiséis mil ochocientos cincuenta y nueve euros), más 5.371,80€ (cinco mil trescientos setenta y un euros y ochenta céntimos), correspondientes a las modificaciones previstas en los Pliegos de Condiciones que rigen la licitación.

Hirugarrena.- Administrazio-kontratazioa eraenduko duten administrazio klausula berezien eta teknikoen pleguak onartzea.

Tercero.- Aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y técnicas que han de regir la contratación administrativa.

Laugarrena.- Erreferentzia egiten zaion zerbitzua kontratatzetik eratorritako betebeharrei aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, zehazki 32.499,39€koa (hogeita hamabi mila lauehun eta laurogeita heretzi euro eta hogeita hemeretzi zentimokoa), %21eko BEZa barne.

Cuarto.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 32.499,39€ (treinta y dos mil cuatrocientos noventa y nueve euros y treinta y nueve céntimos), IVA del 21% incluido.

Bosgarrena.- Kontratuaren arduradun bezala Josu Ateca Acebo jauna, Ingurumen Teknikaria, izendatzea.

Quinto.- Designar como responsable del contrato a D. Josu Ateca Acebo, Técnico de Medio Ambiente.

## LURRALDEA

## TERRITORIO

### 382.- SANTA ANA KALEKO 5. ZENBAKIAN DAGOEN HIGIEZINAREN FATXADAK ETA ESTALKIA BIRGAITZEKO OBRAK HASTEKO LUZAPENA

### 382.- PRÓRROGA PARA EL INICIO DE LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN DE FACHADAS Y CUBIERTA EN EL INMUEBLE SITO EN LA C/SANTA ANA, 5.

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

LEHENA: JAVIER ESPARZA BARTUREN jaunari, SANTA ANA, 5

PRIMERO: Conceder a D. JAVIER ESPARZA BARTUREN, en

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

JABEKIDE ERKIDEGOAren izenean, eskatutako epe luzapena ematea, hiru hilabetekoa, Santa Ana kaleko 5. zenbakian dagoen higiezinaren fatxadak eta estalkia birgaitzeko obrak hastekoa. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 464. erabakiaren bidez baimendu ziren, 2019-10-29ko ohiko bilkuran hartutakoa, eta bertan ezarritako gainerako baldintzei baldintzak mantenduko dira.

representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS SANTA ANA Nº 5, la ampliación de plazo solicitada, de tres meses, para iniciar las obras de rehabilitación de fachadas y cubierta del inmueble sito en c/ Santa Ana nº 5, obras que fueron autorizadas por Acuerdo nº 464 de la Junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 29.10.2019, manteniéndose el resto de condiciones establecidas en éste.

BIGARRENA: Erabaki hau eta horren aurka jarri daitezkeen helegiteak eskatzaileari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

SEGUNDO: Dar traslado del presente Acuerdo, así como de los recursos que proceden contra el mismo al solicitante, a los efectos oportunos.

**383.- JULIAN GARAIZAR KALEKO 1. ETA 3. ZENBAKIETAN DAUDEN BI FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZA ERAISTEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA.**

**383.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA EL DERRIBO DE DOS VIVIENDAS UNIFAMILIARES SITAS EN LA C/JULIAN GARAIZAR, 1-3.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

LEHENENGOA.- I.- ALEX CARRASCAL URQUIDI jaunari, RESIDENCIAL GURETOKI, S.COOP. kooperatiba-sozietatearen izenean eta eskuordetzan, Julian Garaizar kaleko 1. eta 3. zenbakietan dauden bi familia bakarreko etxebizitza eraisteko eskatu duen obra-lizentzia ematea. Eragiketa hori aurkeztutako proiektuaren arabera burutuko da; proiektua Luciano Cobaleda Hernández eta Raul García García arkitektoek idatzita dago eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren 20.02.24ko ikus-onespena du. Halaber, Udalbatzak 19.12.23an hartutako 204 zk.ko Erabakiaren bidez behin betiko onetsitako xehetasun-

PRIMERO.- I.- Conceder a D. ALEX CARRASCAL URQUIDI, en nombre y representación de la sociedad cooperativa RESIDENCIAL GURETOKI, S.COOP., la licencia de obras solicitada para el derribo de dos viviendas unifamiliares en los números 1 y 3 de la C/Julian Garaizar, de conformidad con el proyecto de derribo presentado, redactado por D. Luciano Cobaleda Hernández y D. Raúl García García y visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 24.02.20 y el Estudio de Detalle aprobado definitivamente en virtud de Acuerdo nº 204, adoptado por el Ayuntamiento Pleno el 23.12.19,

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

azterlana aintzat hartuta burutuko da eta honako baldintza hauek bete behar dira:

debiendo cumplir las siguientes condiciones:

Teknikari eskudunek izenpetutako eta kasuan kasuko elkargo profesionalek ikus-onetsitako obren likidazio eta azken ziurtagiriarekin batera, orain eraikinak hartzen duen azalera zer egoeratan geratzen den erakusten duten koloretako argazkiak aurkeztuko dira, ikuspuntu guztietatik. Dokumentazio horrekin batera, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko azken txostena aurkeztu beharko da, 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean adierazitako edukia eta irismena adierazita.

Junto con la liquidación y certificado final de las obras suscritos por los técnicos competentes y visados por los Colegios Profesionales correspondientes, se presentarán fotografías a color del estado en que queda la superficie que ahora ocupa la edificación desde todos los puntos de vista. Deberá de acompañar a esta documentación el informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición, con el contenido y alcance que se señala en el artículo 6 y en el anexo III del decreto 112/2012.

ZUINKETA

Ezin izango dira obrak hasi udal arkitektoak edo bere ordezkariak, obren zuzendari fakultatiboaren aurrean, jarraitu beharreko lerrokadurak eta sestrak lekuan bertan adierazi gabe. Eragiketa hori obren zuzendariak abisatu eta HIRU EGUNEKO EPEAN burutuko da.

REPLANTEO

No podrán comenzar las obras sin que el Arquitecto Municipal o su Delegado señalen sobre el terreno, en presencia del Director Facultativo de las obras, las alineaciones y rasantes que deberán seguirse, a lo que procederá en el término de TRES DIAS desde que fuera avisado por el Director de las obras.

OBRA IXTEA

Obrak hasi aurretik, orubea itxi egingo da, Segurtasun-Azterlanean zehaztutakoaren arabera.

CIERRE DE LA OBRA

Antes de comenzar las obras procederá al cierre del solar de acuerdo con lo especificado en el Estudio de Seguridad.

OROKORRAK

Indarrean dagoen HAPOan gune horretarako jasotakoak lan horiek hartzen ditu barne, eta bete behar da txosten honetako irizpideetan jasotakoa nahiz bere garaian izapidetutako xehetasun-azterketan (espediente-zenbakia: 8700/2018) Miguel Beaskoa

GENERALES

Los trabajos en la zona se enmarcan dentro de lo reflejado para la zona por el vigente PGOU y en sintonía con los criterios incluidos en el presente informe y al estudio de detalle tramitado en su momento Exp. 8.700/2018, en lo relativo a los frentes

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

kalean urbanizatu behar diren zatiei dagokienez adierazitakoa, zeinak nahitaez egikaritu eta laga behar baitira. Hauxe dakar agiri horrek: "sortzen diren bi lurzatiek beren gain hartu beharko dute esparruko gainerako azalera urbanizatzeko kostua (...); horretarako, azaleraren zati bat laga beharko da gaur egun urbanizatu barik dagoen Miguel Beaskoa kaleko zatia egikaritzeko eta Julian Garaizar kalea handitzeko". Aurkeztutako planoetan (O-03) lurzatien eta adierazitako kaleen mugak adierazi dira, bai eta Julian Garaizar kalea Aiboa metro-geltokiko sarbidearekin lotzen duen bidea ere.

Obrak hasi aurretik, Azpiegitura eta Zerbitzuen Arloko udal teknikariek zuinketa onartu beharko dute eta aldez aurretik ingurua zein egoeratan dagoen adierazten duen argazki-erreportaje bat aurkeztu beharko da. Obren ondoren antzemandako kalte edo narriadura oro obrei egotzi ahal izango zaie. OBRAREN ZUINKETA EGIAZTATZEKO AKTA EZ DA SINATUKO HARIK ETA INGURUKO BIDEEN EGOERARI BURUZ AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIO GRAFIKOA EDUKI ARTE, ETA LOREZAINTZA ETA GARBIKETA ZERBITZUAREKIN KOORDINATUTA ORUBEAREN ARRATOIAK HILTZEKO ERAGIKETAK ETA ERAGINDAKO ESPEZIEEN TRANSPLANTE-LAN GUZTIAK ADOSTU ARTE, BETIERE AURRERAGO ADIERAZITAKOAREN ARABERA.

Oro har, eskatzaileak ez du udalaren instalazioak maniobratzeko baimenik udal-eskumeneko sareei dagokienez udaleko zerbitzu teknikoen akordiorik

de urbanización en Miguel Beascoa de obligada ejecución y cesión, según el cual en aquel documento “las dos parcelas resultantes tendrán que asumir el coste de urbanización del resto de superficie del ámbito…, teniendo que ceder parte de su superficie para la ejecución del tramo de la calle Miguel Beascoa que actualmente está sin urbanizar, así como para la ampliación de la calle Julian Garaizar”. En los planos presentados (O-03) se indican los límites de las parcelas y los de las calles indicadas, así como del camino que comunica Julian Garaizar con el acceso a la Estación del Metro de Aiboa.

Antes de iniciar las obras, el replanteo de las mismas deberá de ser aprobado por los técnicos municipales del Área de Infraestructura y Servicios, debiendo previamente entregar un reportaje fotográfico del estado en el que se encuentra la zona. Se entiende que todo daño o deterioro detectado con posterioridad a las obras será imputable a éstas. NO SE FIRMARÁ ACTA DE COMPROBACIÓN DEL REPLANTEO DE LA OBRA EN TANTO EN CUANTO NO SE DISPONGA DE LA DOCUMENTACIÓN GRÁFICA PRESENTADA ASÍ COMO COORDINADO CON EL SERVICIO DE JARDINERÍA Y LIMPIEZA LA DESRATIZACIÓN DEL SOLAR Y CUANTAS LABORES DE TRANSPLANTE DE ESPECIES AFECTADAS SEAN ACORDADAS, SEGÚN LO SEÑALADO MÁS ADELANTE.

Como consideración general, el peticionario no está autorizado a la maniobra de instalaciones municipales sin el acuerdo y presencia y/o

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

eta/edo baimenik gabe.

autorización de los Servicios Técnicos municipales en las redes de competencia municipal.

Obrak egin ondoren, deuseztatutako instalazioen amaierako egoeraren plano topografiko digitalizatu bat aurkeztu beharko da. Plano horretan elementu guztiak zehaztuko dira, besteak beste instalatutako edo aldatutako elementu guztiak, baita udal-titulartasunekoak direnak edo izatera igaroko direnak ere, plano topografiko hori bera oinarri hartuta. Plano topografikoa Delineazio Zerbitzuak ezarritako baldintzak betez egingo da. Obraren amaierako dokumentazio grafikoa udaleko SIG-GIS sistemarekin bateragarria den euskarri informatiko alfanumeriko eta grafikoan aurkeztu beharko da.

Una vez ejecutadas las obras deberá presentarse un plano topográfico digitalizado del estado final de las instalaciones anuladas, en el que se detallarán todos los elementos de la misma, incluso los que han sido instalados o modificados y que sean, o vayan a pasar a ser, de titularidad municipal, que tendrán como base ese mismo plano topográfico. El plano topográfico se realizará siguiendo las condiciones que desde el Servicio de Delineación sean establecidas. La documentación gráfica fin de obra deberá de presentarse en soporte informático alfanumérico y gráfico compatible con el sistema SIG-GIS municipal.

Aurretik adierazitakoa betetzen ez bada, Azpiegitura eta Zerbitzuen Sailak eskatutako lizentzia baliogabetuko du, dagozkion ondorioetarako.

El incumplimiento de lo anteriormente señalado vendrá a anular la licencia solicitada por parte del departamento de Infraestructura y Servicios, a los efectos oportunos.

Hori guztia egiteko ondoren adierazten diren baldintzak hartuko dira kontuan; baldintza horiek posta elektronikoz ere aurreratu dira euskarri elektronikoko dokumentazio grafikoari dagokionez:

Todo ello se realizará teniendo en cuenta las condiciones que se señalan a continuación, las cuales se han adelantado por e-mail también en lo relativo a la documentación gráfica en soporte electrónico:

URA ETA SANEAMENDUA

AGUA Y SANEAMIENTO

Eraikina eraitsi aurretik, guztiz ezabatuko dira hornidura- eta saneamendu-hartuneak, eta lurzatiaren inguruko udal-elementu guztiak babestuko dira, hausturak saihestearen ondoreetarako; gainera, saihestu egingo da saneamenduko udal-sareetara eraistearen ondoriozko hondakinak sartzea, bai inguruko hustubideen

Previo al derribo de la edificación, se eliminarán completamente las acometidas tanto de abastecimiento como de saneamiento, y se protegerán todos los elementos municipales cercanos a la parcela con el fin de evitar roturas, además se evitará que entren residuos procedentes del derribo a las redes municipales de saneamiento

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

bidez, bai deuseztatutako hargunearen bidez.

tanto a través de los sumideros cercanos como de la acometida anulada.

Deuseztatzeak hartunearen hasieratik egin beharko dira, hau da, ura banatzeko hodi orokorrean eta saneamenduko udal-kutxatiletan.

Las anulaciones se deberán realizar desde el inicio de la acometida, es decir, en la tubería general de distribución de agua y en las arquetas municipales de saneamiento.

Bai hartuneak deuseztatzeko lanak, bai udal-elementuak babestekoak, eraikina eraitsi aurretik egin behar direnak, Uraren eta Saneamenduaren Ataleko langileek gainbegiratu beharko dituzte (944660180).

Tanto los trabajos de anulación de acometidas como de protección de elementos municipales, previos al derribo de la edificación, deberán ser supervisados por personal de la sección de Agua y Saneamiento (944660180).

Gogoan izan behar dute eraisteko lanen ondorioz udal-elementuetan gertatzen den edozein kalte berehala konpondu beharko dela.

Se recuerda que cualquier desperfecto en elementos municipales originado como consecuencia de los trabajos de demolición deberá ser reparado inmediatamente.

BIDEAK

VIALIDAD

Udalaren titulartasuneko bideei dagokienez, obren hasieran egin beharko den argazki-erreportajea (obrek eragindako eremuko eta inguruko espaloiaren eta galtzadaren zoladuraren egoera eta kokapena zehazteko) hartuko da erreferentziatzat, eta erreportaje hori espedienteari erantsiko zaio. Egindako lanen edo obra horri lotutan jarduten duten makinen era ibilgailuen maniobren eta/edo ibilbideen ondorioz zuzenean narriatu edo kaltetu den zoladura konpondu egin beharko da.

En lo que pueda afectar a los viales de titularidad municipal y tomando como referencia el reportaje fotográfico (para determinar el estado y situación del pavimento de la acera y calzada de la zona afectada por las obras y su entorno) que deberá realizarse al inicio de las obras y adjuntarse al expediente, se llevará a cabo la reparación del pavimento que haya sufrido deterioros bien como consecuencia directa de los trabajos realizados o como consecuencia de las maniobras y/o itinerarios de la maquinaria y vehículos afectados a la misma.

Era berean, edozein udal-zerbitzutako edo udalez kanpoko hartuneak deuseztatzeak eragindako zoladura ere konpondu egin beharko da. Konponketa hori egiteko lehendik dagoen zoladura mota bera erabiliko

Así mismo se incluirá la reparación del pavimento afectado por la anulación de las acometidas, que haya de realizarse en su caso, de cualquier servicio municipal o no municipal, esta reparación se ejecutará con pavimento

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

da, ezaugarri berberak dituena alegia, eta bide-zoruen paketea udal-sekzioetan zehaztutakora egokituko da.

de las mismas características que el existente y el paquete de firmes se ajustará a lo definido en las secciones tipo municipales.

Sortutako narriadura edo kaltea hesitutako obra-eremuaren barruan badago, konponketa urbanizazio-obrak egitean burutuko da; horrela ez bada, berehala egingo da, indarrean dagoen araudiaren arabera seinaleztatu ondoren.

En caso de que el deterioro producido esté dentro del ámbito de obra vallado, la reparación se ejecutará al hacer las obras de urbanización, en caso contrario se llevará a cabo de forma inmediata, previa señalización conforme a la normativa vigente.

ARGIAK

ALUMBRADO

Behar bezala kontserbatuko dira inguruan gaur egun dauden instalazioak (giro-motako luminariak, 4 metroko altuerako zutabe metalikoen gainean, lurpeko linea elektriko baten bidez elikatuak) obrek ez ditzaten kaltetu argi-puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak. Obrako, lurzatietako, eraikinetako eta/edo etxebizitzetako sarbideak premisa horiek betez kokatuko dira, eta une oro bermatuko dira instalazioen funtzionamendu- eta segurtasun-baldintzak eta espazio publikoen argiztapen-baldintzak.

Se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes en la actualidad (luminarias tipo ambiental situadas sobre columnas metálicas de 4m de altura y alimentadas a través de línea eléctrica subterránea) y en las zonas próximas, de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas, situando los accesos a la obra, las parcelas, edificios y/o viviendas de acuerdo con estas premisas y garantizando en todo momento tanto las condiciones de funcionamiento y de seguridad de las instalaciones como las de iluminación de los espacios públicos.

Eskatzaileak eta/edo enpresa sustatzaileak kontuan hartu beharko dute aurrez adierazitako baldintzak betetzeko behar diren jarduketak egitea, arestian aipatu diren instalazioko elementuen kokapena errespetatuz, eta obrak hasi aurretik horien egoera eta egungo kokapena zehazteko behar den dokumentazioa (grafikoa barne) bidali beharko dute. Obrak betearazten diren bitartean edo betearazi ondoren instalazioetan antzemandako kalte edo narriadura oro obra horiei egotzi ahal izango zaie.

El solicitante y/o empresa promotora deberán considerar la realización de las actuaciones precisas para cumplir las condiciones señaladas anteriormente, respetando la ubicación de los elementos de la instalación ya citados, y remitir previamente al comienzo de las obras la documentación (incluso gráfica) precisa para determinar el estado y situación actual de los mismos. Se entiende que todo daño o deterioro detectado en las instalaciones durante la ejecución o con posterioridad a las obras será imputable a éstas.

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

Aurreikusitako jarduketen garapenak egungo instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea eragozten badu edo/eta horiek aldatu behar badira, aipatu diren baldintzak betetzen dituen behin-behineko irtenbide alternatibo bat definituko da. Kasu hori bereziki kontuan hartu beharko da ibilgailuen pasabideek eraginak sor ditzaketelako.

En caso de que el desarrollo de las actuaciones previstas imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones actuales y/o precise su modificación, se definirá una solución provisional alternativa a la misma que cumpla con los condicionantes ya indicados. Este caso deberá considerarse especialmente por la posible afección de pasos de vehículos.

Tokian dauden instalazio, altzari edo zerbitzuei eragitea saihestuko da, hala nola argiteria publikoari, eta uneoro ahalbidetuko da behar diren mantentze-lanak egiteko instalazioetako elementuetara (kutxatilak, kutxak, kableak, argi-puntuak…) iristea eta sartzea, burutu beharreko lan horiek baliabide mekanikoak behar izan ditzaketela kontuan hartuta.

Se evitará la afección a instalaciones, mobiliario o servicios ya existentes en el lugar, como es el caso del alumbrado público, posibilitando el acceso en todo momento a los elementos (arquetas, cajas, cableado, puntos de luz…) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Segurtasun-arrazoiak direla eta, ezin izango dira inola ere manipulatu, ezta erabili ere, argiteria publikoko instalazioetako elementuak finkatze-puntu, eroanbide edo kanpoko elementuen euskarri gisa.

Por razones de seguridad, no podrán manipularse en modo alguno ni utilizarse los diversos elementos de las instalaciones de alumbrado público como puntos de fijación, conducción o soporte de elementos ajenos a ellas.

Hirugarren pertsonen bidez informazioaren interpretazio okerrak eta transmisio akastunak saihesteko, eta instalazioen zuinketa egitearen ondoreetarako, sustatzaileak eta instalazio horiek gauzatuko dituen behe tentsioko enpresa instalatzaile baimendunak harremanetan jarri beharko dute Zerbitzuaren ardura duten udal-teknikariekin, 94.466.01.80 telefono zenbakian.

Al objeto de evitar interpretaciones incorrectas y transmisiones erróneas de la información a través de terceras personas y para realizar el replanteo de las instalaciones, deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales responsables del Servicio en el teléfono 94.466.01.80.

LOREZAINTZA

JARDINERÍA

Aurkeztu beharreko proiektuak inbentario bat izan beharko du, eta

En el proyecto a presentar deberá constar inventario con las propuestas

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

bertan orain dauden ukitutako zuhaitzak lurzatian mantentzeko, mozteko eta/edo botatzeko proposamenak jaso beharko dira, bereziki honako zuhaitz hauei dagokienez: 8 m-ko laranjondoa, 15 m-ko zumarra, limoiondoa nahiz orain dauden hiru sagarrondoak, 15-17 m-ko mizpirak, 5 m-ko zumea, ligustrumak, ereinotzak, intsusak eta gunean dauden bi garangorriak. Proiektuan adierazi beharko dira, zerbitzuak hala adierazita, egin beharreko lanarekin bateragarriak ez diren eta jarduketa egin behar den lurzatian geratuko ez diren espezieen neurriak, udal-lurzatietan birlandatu daitezen. Lorezaintza Zerbitzuko arduradun diren udal-teknikariekin harremanetan jarri beharko dira, alor horretan egin beharreko lanak ezagutzeko eta balioztatzeko. Ukitutako espazioak zehatz-mehatz identifikatu behar dira, dauzkaten balioa eta interesa eta/edo babesa aipatu eta abar. Hori urbanizazio-eranskinean gaineratu behar da.

de mantenimiento en parcela, tala y/o derribo de los árboles existentes afectados, concretamente al respecto del naranjo de 8m, el Olmo de 15 m, el limonero y los 3 manzanos existentes, los níspero de 15-17 m, el sauce de 5 m así como los ligustrum, laureles saucos y 2 madroños existentes en la zona. Se deberá de incorporar en el proyecto las medidas para poder transplantar en parcelas municipales a indicar por el servicio de aquellas espécies que no sean compatibles con el desarrollo a realizar y que no vayan a quedarse finalmente en la parcela objeto de la actuación. Se deberán poner en contacto con los técnicos municipales responsables del servicio de jardinería municipal de cara a conocer y validar los trabajos a llevar a cabo al respecto, identificando especies afectadas con exactitud y el valor e interés y/o protección que tengan, etc…, cuestión que deberá de incorporarse en el anexo de urbanización.

Erabat debekatuta dago lanak hastea aurretik ez bada erabaki ukitutako espezieak birlandatzea.

Queda terminantemente prohibido el inicio de los trabajos sin previamente se hayan acordado los transplantes de las especies afectadas.

Lurrak mugitu edota eraikuntza eraitsi aurretik, ezinbestekoa da lizentziari dagokion aldean eta inguruetan arratoiak hiltzeko tratamendu intentsibo bat aplikatzea.

Previo al movimiento de tierras alguno o derribo de edificación es requisito indispensable efectuar un tratamiento intensivo de desratización en el área afecta a la correspondiente licencia y sus inmediaciones.

Arratoiak hiltzeko tratamendua obrak hasi baino gutxienez 15 egun lehenago egingo da eta enpresa espezializatu batek egingo du. Enpresa horrek Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko du.

El tratamiento de desratización será efectuado con una antelación mínima de 15 días al inicio de las obras y será efectuado por una empresa especializada que deberá estar inscrita en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

Plaguicidas.

Arratoiak hiltzeko tratamendu intentsiboa egin ondoren, enpresa jarduleak tratamendu-ziurtagiri bat egingo du, eta horretan adieraziko du erabilitako produktuak Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Plagiziden Erregistroan inskribatuta daudela; halaber, tratamenduan erabili duen bolumena eta produktu horiek aplikatu diren eremu zehatzak adieraziko dira.

Tras la realización del tratamiento intensivo de desratización, la empresa actuante emitirá un Certificado de Tratamiento donde se indique el/los productos utilizados que deberán estar inscritos en el Registro de Plaguicidas de la Dirección General de Salud Pública, el volumen empleado y las zonas concretas de aplicación de los mismos.

Tratamendu horri buruzko ziurtagiria Ingurumen Arloari bidaliko zaio obrak egin aurretik. Atal honi buruz behar den informazio guztia arlo honetan ere kontsultatu ahal izango da, 94.466.01.91 telefono zenbakiaren bidez. Ziurtagiri horren kopia Azpiegitura eta Zerbitzuen Arlora bidaliko da, 94.466.01.80 zenbakira.

El Certificado de Tratamiento será remitido al Área de Infraestructuras y Servicios con copia para el Área de Medio Ambiente, con incorporación de copia al anexo de urbanización, con anterioridad a la ejecución de las obras. Cualquier información que se precise en relación con este apartado podrá consultarse en este Área igualmente a través del número de teléfono 94.466.01.80.

HONDAKINAK ETA GARBIKETA

RESIDUOS YLIMPIEZA

Obrako ibilgailuak bide publikora ateratzen direnean ez dute bide publiko hori zikinduko, lohitasunik eragin gabe eta horren ondorioz eratorritako segurtasun-arazorik sortu gabe. Horregatik, beharrezkoa bada, gurpilak garbitzeko gune bat jarriko da bide publikorako irteera bide publikoan zikinkeriarik sortu gabe egin dadin.

La salida a la vía pública de los vehículos de obra se ejecutará sin afectar en suciedad a la vía pública, sin generar suciedad ni problemas de seguridad derivado por ésta. Por eso, se instalará una zona de lavado de ruedas para que la salida a la vía pública se efectúe sin generar suciedad en la vía pública.

Obra-hondakinak behera botatzeko hodiak edo eraispen-hondakinak pilatzeko zonak, hondakinak kudeatzeko puntuak eta abarrekoak baldin badaude, haien kokapenak ez du bide publikoa zikinduko eta ez du eraikuntza-hondakinik pilatuko behar bezala mugatu gabe.

En el caso de existencia de bajantes de escombros o zonas de acopio de restos de demolición, puntos de Gestión de residuos, etc… su ubicación no generará suciedad en la vía pública ni acopio de restos de construcción sin delimitar debidamente.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

Obrak amaitu ondoren, eremuaren garbiketa sakona eta zorrotza egingo da (ekortzeko makina, presiozko ura mahukatzea...), obrek eragindako eremu publikoen, espaloien eta garbitasun-maila berreskuratzeko, baita bideen garbiketako ura biltzen den hustubideetako hondarren garbitasun-maila lehengoratzeko ere. Garbiketa horren data Udaleko Zabor-bilketa eta Garbiketa Sailari jakinaraziko zaio helbide elektroniko edo telefono zenbaki honetan:

Bien durante las obras como una vez se hayan terminado las obras se procederá a realizar una limpieza profunda (barredora, mangueo agua a presión...) al objeto de recuperar el grado de limpieza de las zonas públicas afectadas por las obras, aceras, viales, así como los areneros de los sumideros donde se recoja el agua de la limpieza. La fecha de la citada limpieza se comunicará al Departamento de Recogida y Limpieza municipal en la siguiente dirección de correo electrónico ó teléfono:

eazpiegzerbitzadmin@getxo.eus

administracion.ingenieria@getxo.eus

94.466.01.80

94.466.01.80

Azpiegitura eta Zerbitzuen Arloari jakinarazi ondoren, gutxienez garbiketa-data baino astebete lehenago, garbiketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunarekin harremanetan jarri beharko da, garbiketa hori koordinatu eta ikuskatzeko eta eremu publikoen garbiketaren eraginkortasuna ikusteko eta zaintzeko. Harremanetarako telefonoa 94.464.43.80 da.

Una vez se haya notificado al Área de Infraestructura y Servicios se deberá de contactar al menos, 1 semana antes de la fecha de la limpieza a llevar a cabo con la empresa adjudicataria del servicio de limpieza de cara a coordinar e inspeccionar con ella la citada limpieza y observar la efectividad de la limpieza de las zonas públicas. El teléfono de contacto es el: 94.464.43.80.

BESTE ZERBITZU BATZUK

OTROS SERVICIOS

Ikuskapen-bisita egin ondoren, eraitsi beharreko eraikinaren lurzatian linea elektrikoak eta telefonikoak daudela egiaztatu ahal izan da; beraz, horiek ezabatzeko eta/edo, behar izanez gero, desbideratzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.

Se ha podido comprobar la existencia de tendidos eléctricos y telefónicos anclados a las fachadas de las edificaciones a demoler por lo que se adoptarán las medidas necesarias para la eliminación de los mismos, si van a quedar fuera de servicio, y/o su desvío en caso de ser necesarios.

Debekatuta dago bide publikoan aireko lineak egitea; beraz, bide publikoari eragiten dioten lineak desbideratu baino lehen, udal-teknikariek aldez aurretik jakinarazi beharko dute zer baldintza tekniko eta zuinketa ezarriko

No está permitida la instalación de postes en la vía pública, en caso necesario se realizará la canalización correspondiente previo el visto bueno de los técnicos municipales, bajo replanteo conjunto de manera previa a

dituzten lurzoru publikoan edo lurzoru publiko izatera igaroko den lurzoruan.

su ejecución y debiendo reponer el pavimento afectado conforme a las condiciones que se establezcan por el departamento de vialidad municipal.

BESTE BALDINTZA BATZUK

OTRAS CONDICIONES

Bereziki gogorarazten da obra aurkeztutako eta Udalak onartutako planoetara erabat egokituta betearazteko betebeharra. Ondore horretarako Udaleko Zerbitzu Teknikoek aldizkako berrikuspenak egingo dituzte obrak burutzen diren bitartean.

Se recuerda especialmente, la obligación de ejecutar la obra ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento. A este efecto se realizarán por los Servicios Técnicos Municipales revisiones periódicas en el transcurso de las obras.

Aldarazpen mota guztiak obrak egin aurretik eskatuko dira, eta aldaketa horiek ezin izango dira hasi dagokion udal-baimenik gabe.

Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

Eskubideak ordaintzearekin batera, eta obrak hasi baino lehen, udal-gordailuan 2.012,84 euroko zenbatekoa izango duen banku-abala jarri beharko da edo eman beharko da. Abal horrek berme gisa eragingo du, ezartzen zaizkion baldintzak zorrotz betetzen dituela erantzuteko.

Simultáneamente al pago de los derechos y antes de iniciarse las obras, se deberá consignar en la depositaría municipal o prestar aval bancario por importe de 2.012,84 € que afectará en garantía para responder del estricto cumplimiento de las condiciones que se le imponen.

Era berean, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua betez, 25.635,13 euroko zenbatekoko fidantza eratu beharko da eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko.

Asimismo, en cumplimiento del artículo 5 del Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, deberá constituirse fianza por importe de 25.635,13 € para garantizar la adecuada gestión de los residuos de construcción y demolición.

Ezin izango dira lursailak erabili Udalak eraspena egin ondoren bidezko lehen erabilerarako lizentzia eman gabe. Betebehar hori ez betetzearen erantzule obra-lizentziaren titularra izango da.

En ningún caso se podrán utilizar los terrenos sin tener concedido el Ayuntamiento la licencia de primera utilización tras la demolición. Será responsable del incumplimiento de esta obligación el titular de la licencia de derribo.



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

LIZENTZIA GAUZATZEKO EPEAK

PLAZOS DE EJECUCIÓN DE LA LICENCIA

Lizentzia hau eman izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuko den 60 egun naturaleko epean Udal Zuinketaren Akta egin beharko da.

En el plazo de 60 días naturales, contados a partir del día siguiente al de recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia, se deberá realizar el Acta de Replanteo Municipal, previa entrega de la documentación solicitada.

Akta honetatik aurrera hasiko da kontatzen obra horiek egiteko epea; egin diren kalkuluen arabera epe hori ezin da HIRU (3) HILABETE baino gehiagokoa izan.

A partir de este Acta empezará a contar el plazo para la ejecución de estas obras, que se estima no podrá se superior a TRES (3) MESES.

Sustatzaileari egotz dakiokeen arrazoi batengatik obren exekuzioa gehienez ere hilabetez eten ahal izango da.

El periodo máximo en que puede estar interrumpida la ejecución de las obras por causa imputable al promotor será de 1 mes.

Obra hasi gabe edo amaitu gabe dagoenean, edo sustatzaileari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik etenda dagoenean udalak horretarako bidezko luzapenik eman gabe, udalak lizentzia iraungi dela deklaratuko du, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Transcurridos los plazos en los que la obra no se hubiese iniciado o no hubiese finalizado, o estuviera interrumpida por causa imputable al promotor sin que se haya otorgado una prórroga, el ayuntamiento declarará, previo procedimiento administrativo con audiencia al interesado, la caducidad de la licencia, sin derecho a indemnización alguna.

II.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 211.2 artikuluan xedatutakoaren arabera berariaz adierazten da lizentziak jabetza-eskubidea salbu eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango direla.

II.- Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del Pais Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

III.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta zer errekurtso jar daitezkeen adieraztea.

III.- Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Arlo Ekonomikoak

SEGUNDO.- Por el Área Económica

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/12/02 Fecha: 02/12/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/12/04 Fecha: 04/12/2020

dagokion likidazioa egingo du horretarako kontuan hartuta aurrekontua 40.256,83 eurokoa dela.

será realizada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el presupuesto asciende a 40.256,83 €.

**384.- ALANGOBARRI KALEKO 10. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINEAN ESTALKIA, INGURATZAILEA ETA PATIOAK BIRGAITU ETA KONPONTZEKO OBRAK EGITEKO ETA ALDAMIOAK JARTZEKO ERE LIZENTZIA EMATEA.**

**384.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS DE REHABILITACIÓN Y REPARACIÓN DE CUBIERTA, LA ENVOLVENTE Y PATIOS DEL EDIFICIO SITO EN LA C/ALANGOBARRI, 10, ASÍ COMO PARA LA INSTALACIÓN DE ANDAMIOS.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

LEHENENGOA.-
